

ERABAKIA, 2020ko otsailaren 24koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLArako F 762 Koordinatzailea lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betekitzeko deialdia ebatzi da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2020ko urtarrilaren 17ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.-Gerentearen erabakiaren bidez, 2020ko otsailaren 7koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZPko Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako l. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2020ko apirilaren 1eko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioarekiko, eta nomenen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar daskioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2020ko otsailaren 24an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA



Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA

2020/01/17

Esleipenduna:	SARRIEGI ETXEZARRETA, Miren Sorkunde
Lanpostuaren izena:	Koordinatzailea
Lanaldia:	Arautua
Eref.:	F 762
Zenbatgarrena:	9
Maila:	22
Taldea:	B/C
Eskala:	Unibertsitate kudeaketa/Administraria
H.E.:	3; 2017ko irailaren 30a
Langunea:	GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA
Campus:	GIPUZKOA
BE:	
Ondorio data:	2020ko apirilaren 1a

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2020ko urtarrilaren 17ko DEIALDIA

1740		F 762		Koordinatzailea										Hor. 9		HE 3. 17/9		GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA																	
ADJ	DNI	DEITURAK, Izena	ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN.		EMANDAKO ZERBITZUAK GUZT.	F = Taldea		L ≈ Taldea		F & L ≠ Talde		EHUn ZERB.		F = Taldea		L ≈ Taldea		F & L ≠ Talde		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	HIZK.	EUSKARA		ELKAR.					
					Urteak	Puntuak		Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	G	<	Punt.	Puntos	Puntos	PL	Pos.	Puntos				
ADJ	34098622H	SARRIEGI ETXEZARRETA, MIREN		18,4500	21	9,45	7,00					219	5,00	219	5,00							33	2,00	33	2,00	16	-3	0,5	1,00	0,50	3	0			

c) Deitutako lanpostuaren beheragoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak.